

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure ideia arropa denda bat jartzea da baina berezitasun bat izango du: Itsuek edo bistako arazoak dituztenek ere arazorik gabe erosi ahal izango dute.

Gure helburua, arropan braille idazkera erabiltzea izango da, ikusmen gaixotasunak dituzten horiek, arropan idatzia dagoenaz jabetu daitezen. Guk salduko ditugun arroparen xehetasunak hauek izango dira: prezio merkea eta kalitate onekoa, tamaina guztietako arropak egingo dira, arropetako testura desberdinak erabiliko dira.

Horretaz gain, bezeroei beraien arropa diseinatzearen aukera emango diegu eta beraien gustura josiko dugu. Horrela beste zerbitzu gehigarri bat eskainiko dugularik. Beraz, bistako arazoak dituztenei mota horretako erosketak egitea erraztuko diegu eta zerbitzu pertsonalizatua ere eskainiko dugu.